

## Taxia %4 garestiago

Udal Gobernuak taxien prezio berriak onartu ditu eta oro har, zerbitzua %4 garestitzea aurreikusi du. Prezio berriak datorren urtean ezarriko dira, baina lehendabizi Udalbatzarrak eta Eusko Jaurlaritzak oniritzia eman beharko diote PSE-EEren eta PPren erabakiari. Udalbatzarrari dagokionez, ez da aldaketa handirik espero, bi udal gobernukideek gehiengo osoa baitute.

Taxi gidariak %4 eta %7 bitarteko igotzea eskatu zuten arren, Udal Gobernuak prezioak %4 igotzea erabaki du, hau da, aurreikusitako KPI (Kontsumo Prezioen Indizea) baino zertxobait gehiago.

Datorren urtean, lan egunetan, 07.00etatik 22.00etara, bandera jaitsiera 501 pezeta balioko du. Hauxe izango da, beraz, taxia hartuz gero, ordaindu beharreko gutxieneko dirua. Gaur egun, bandera jaitsiera 480 pezetatan dago. Kilometroko, berriz, 90 pezeta ordaindu beharko da, orain baino hiru pezeta gehiago, eta zain egondako orduko 2.356 pezeta (egun 2.255 pezeta). Jai egunetako eta gaueko prezioei dagokienez, ban-




dera jaitsiera 593 pezetatan izango da, orain baino 23 pezeta garestiago, eta kilometroa 138 pezetatan, orain baino bost pezeta gehiago. Zain egondako orduko, 3.157 pezeta ordainu beharko da, egun baino 121 pezeta gehiago.

Donostian 308 taxi aritzen dira lanean; 168 Radio Taxi Donostikoak dira, 130 Vallinakoak eta gainontzeko hamarrek era independentean dihardute.

## Hitz eta pitz

### Pepe Rei ohi bezain kritikoa



Pepe Rei kazetariek azken liburua aurkeztu berri du: "El periodista canalla". Liburu honetan, intxaurrendotarrak komunikabide munduan egindako ibilbideari erreparaso egin dio eta horrez gain, kazetaritzari buruz hausnarketa egin du.

Pepe Rei oso kritikoa da hainbat komunikabide eta kazetariren jokaerarekin. Aurkezpen egunean, benetako kazetaritzak nolakoa izan beharko lukeen adierazi zuen: "kazetariak euren konzientziarekiko menpekotasun handiagoa izan beharko lukete, eta ez hainbeste agintarekiko". Reik esan zuenez, kazetaritzan aritutako 33 urteetan ehun bat salaketa eta kereila izan ditu, baina bat bera ere ez du galdtu.

## Telefonia antenekin gora eta behera

Sakeleko telefono antenak direla eta, ikamika izan da aste honetan Udalean. Astelehenean, urriak 1, Hirigintza Disziplina zinegotzi Maria Jose Usandizagak Espainiako Zientzia eta Teknologia Ministerioaren ikerketaren berri eman zuen. Ikerketak dioenez, antena hauek ez dira kaltegarriak osasunarentzat. Batasuna, aldiz, ez dago ados bertan jasotakoarekin.

Maria Jose Usandizagak ezagutarazitako ikerketaren arabera, neuritutako tokietako antenen isurketa elektromagnetikoak ez dira arriskutsuak gizakiarentzat, Europako Batasunak aholkatutakoa baino txikiagoak dira eta.

Donostian aztertutako antena guztiek metro karratuko 0,1 watiotik beherako potentzia dute. Txostengileek diotenez, eremu elektromagnetikoa arriskutsua izateko, metro karratuko 4,625 edo 2,050 watiotik gorako potentzia izan behar du, betiere antenaren arabera. Beraz, Donostiako antenak kaltegarriak ez direla adierazi dute.

Batasunak, ordea, kritika gogorra egin dio Mari Jose Usandizagari. Izan ere, Espainiako Zientzia eta Teknologia Ministerioaren neurketa tresnak egokiak ez direla dio. Josetxo Ibazeta Batasunako zinegotziaren esanetan, ministerioak ezin du metro karratuko 0,1

watiotik beherako neurketarik egin, "nazioarteko zientzilariek neurketak zentimetro karratuko mikrowatioen arabera egitea gomendatu duten arren". Ibazetaren ustez, "sekulako lardaskeria da".

Ilido honetatik, Ibazetak gogorarazi du Austriako Gobernuak antolatutako Salzburgeko Batzarrean sakeleko telefonia digitalaren muga zentimetro karratuko 0,1 mikrowatioetan jarri zutela. Bestalde, Bilboko epaitegi batek hartutako erabakia ere aipatu du. "Epaitegi honek antena bat kentzera behartu zuen Airtel, zentimetro karratuko 0,4 mikrowatitok gorakoa zelako".